Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Felipe Sarriegi Olaran

Beasain, Gipuzkoa (1930-2007)



Aurkibidea

Biografia



Beasainen jaioa. Gurasoek sagardotegia izan zuten ("Bodegon") 1934-1954 bitartean (gutxi gorabehera). Umetan bertan lagundu behar izaten zuen. Hamalau urterekin CAFen hasi zen lanean. Kirolzale amorratua, umetatik hasi zen lasterketetan parte hartzen, eta batez ere futbolean jokatzen. Beasaingo hainbat taldetan jokatu zuen (Avenida, Loinaz, Beasain...), familiak uzten ez zion arren.

Zintak

BEA-048

- **Proiektua**: Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Data**: 2006-03-30
- **Iraupena**: 48 min
- **Euskarria**: MiniDV
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Gurasoei lagundu behar sagardotegian

- **Erref**: BEA-048/002
- **Iraupena**: 0:02:17. **Hasi**: 00:00:48. **Bukatu**: 00:03:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:
Gurasoek sagardotegi bat hartu zuten. Sagardoa Olaberriko Berasategik egiten zuen eta handik ekartzen zuten. Gero, amak jateko zerbait prestatzen zuen. Beraiek sagardotegian lagundu behar gazte-gaztetatik. Sagardo garaian bakarrik irekitzen zuten hasieran, baina gero urte osoan hasi ziren. Orduan, ardoa ere izaten zuten. Ogi zuririk ez zegoen gerraostean eta ezkutuan Lazkaora joan behar izaten ziren ogi bila.

2. Inguruko gazte asko joaten zen sagardotegira

- **Erref**: BEA-048/005
- **Iraupena**: 0:02:18. **Hasi**: 00:05:00. **Bukatu**: 00:07:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:
Inguruetako gazte asko joaten ziren sagardotegira, bokadiloa jatera. Txistorra edo tortilla egoten zen jateko, edo bestela sardina zaharrak. Bazegoen arabar kuadrilla bat igandero futbol partida ikusi eta gero sagardotegira joaten zena merienda jan eta kartetan egitera.

3. Olaberritik ekartzen zuten sagardoa

- **Erref**: BEA-048/008
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:08:50. **Bukatu**: 00:11:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:
Felipek uste du gaur egungo sagardoak kalitate hobea duela, tresna hobeak daudelako egiteko ere. Olaberritik ekartzen zuten beraiek sagardoa, kupel handi batean. Gero bonba batekin sartzen zen goitik behera, sagardotegira. Aitak urtero kupelak garbitu behar izaten zituen. Kristalezko depositu antzeko bat ere izaten zen; hura garbitzeko barrura sartu behar. Lehenbizi pospolo bat pizten zen barruan, barrura sar zitekeen ala ez jakiteko.

4. Korrika lasterketetan parte hartzen zuen

- **Erref**: BEA-048/009
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 00:11:28. **Bukatu**: 00:12:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:
Feliperi korrika egitea eta futbolean aritzea gustatzen zitzaion, baina gurasoek ez zioten uzten. Korrika lasterketa asko izaten ziren orduan eta berak ere parte hartzen zuen.

5. Futbolean umetatik

- **Erref**: BEA-048/010
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:12:20. **Bukatu**: 00:14:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:
Futbolean umetatik hasi zen. Lehenbizi auzoetako taldeetan, era informalean, fitxa gabe (Usurben, Avenida-n...). Gero Loinazen; baina horretarako federatu egin behar zen eta fitxa egin.

6. Futbolean non jokatzen zuten

- **Erref**: BEA-048/011
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:14:24. **Bukatu**: 00:15:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:
Futbolean plazan bertan edo eliza atzean aritzen ziren. Txapelketak jokatzera Senperera joaten ziren.

7. Neurri desberdinetako botekin futbolean

- **Erref**: BEA-048/012
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:15:30. **Bukatu**: 00:16:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Beraiek futbolean aritzen zirenean, askotan futboleko botak neurri desberdinetakoak erabiltzen zituzten, eta galtzerdiak, berriz, zulatuta. Frontoian pilotan ibiltzen zirenean, abarketak kendu egiten zituzten ez apurtzeko; bestela etxean errieta.

8. Leontxo Lasa futbol jokalari beasaindarra

- **Erref**: BEA-048/015
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:19:55. **Bukatu**: 00:21:24
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:
Loinaz futbol taldean jokatu ostean pare bat urte egin zituen Umore-ona taldean. Handik, Beasain taldera pasa zen, Leontxo Lasak alde egin zuenean. Fitxa ateratzeko, mediku-azterketa egitera joan ziren Antonio Zufiaurre, Leontxo Lasa eta hirurak. Leontxok ez omen zuen pasa azterketa, eta Andaluziara joan zen. Gero urte askoan jarraitu zuen futbolean; Malagan eta Betisen ere jokatu zuen.

9. Beasain taldean 20 urterekin hasi eta 24rekin utzi

- **Erref**: BEA-048/017
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:22:00. **Bukatu**: 00:23:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:
20 urterekin hasi zen Beasain taldean jokatzen eta 24 urterekin utzi egin zuen. Ebakuntza bat egin behar izan zioten eta futbolean ez zuenez aurrera egiteko aukerarik ikusten, uztea erabaki zuen.

10. Lantegitik irten, bazkaldu, futbolean jokatu eta berriz lantegira

- **Erref**: BEA-048/018
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:23:18. **Bukatu**: 00:24:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:
Beasainen futbolerako zaletasun handia zegoen. Baita jokatzeko ere. Lantegitik 12etan irten, bazkaldu eta plazara joaten ziren futbolean aritzera.

Gero korrika lantegira, ordu bietarako iristeko. Lazkaotik ere Beasainera etortzen zen jendea futbolean jokatzera.

11. Lehen eta orain ilusio desberdina futbolerako

- **Erref**: BEA-048/019
- **Iraupena**: 0:02:39. **Hasi**: 00:24:26. **Bukatu**: 00:27:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:
Bera umetatik hasi zen futbolean eta beti izaten zen ekipo handiagoetan jokatzeko ilusioa, baina gaur egun "egarria" handiagoa dela uste du. Lehen inguruetan ere ez zegoen talde asko. Gaur egun futbol talde ugari daude. Zeharo desberdina da egoera. Bera Erreal zalea da, baina baita Athletic zalea ere. Orduko futbola nola bizi zuten.

12. Garai bateko baloiak

- **Erref**: BEA-048/020
- **Iraupena**: 0:00:59. **Hasi**: 00:27:05. **Bukatu**: 00:28:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:
Kalean jokatzen zuten futbolean, kotxe gutxi ibiltzen zen eta. Nolako baloiak erabiltzen zituzten.

13. Futbol-zelaian bildutako lokatzak nola kentzen zituzten

- **Erref**: BEA-048/022
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:28:14. **Bukatu**: 00:30:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:
Lehengo futbol-zelaietako baldintzak. Lokatza egoten zen. Senperen ur hotzetan garbitzen ziren partidua bukatutakoan, aska handi batzuetan. Ordizian, berriz, egoera txarreko dutxa bat omen zegoen. Andoainen Oria ibaira joaten omen ziren lokatza kentzera. Partidua jokatu ostean lehenengo aldiz dutxa beroa Legazpiko futbol zelaian hartu omen zuen. Hurrena, Tolosan.

14. Beasain taldean arropak eta oinetakoak garbitu beharrik ez

- **Erref**: BEA-048/023
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:30:30. **Bukatu**: 00:31:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Beasain taldean jokatzen hasi zenean neurriko botak ematen zizkieten, eta, gainera, eurak arduratzen ziren botak garbitzeaz. Pertsona bat egoten zen arropak garbitu eta dena prestatzeko.

15. Beasain vs. Ordizia pikea futbolean

- **Erref**: BEA-048/025
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:32:40. **Bukatu**: 00:33:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:
Beasain eta Ordiziaren arteko pikea oso gogorra izaten zen futbol-zelaian. Behin partidu baten ostean epailea ihesi zihoala harrikada batekin jo zuten eta trenbidean geratu omen zen. Handik kanpora lagunak izan arren, zelaian tentsioak sortzen ziren.

16. Taldearen antolaketa lehenago; entrenamendua asten behin

- **Erref**: BEA-048/026
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:33:40. **Bukatu**: 00:36:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:
Futbol taldearen antolaketa nolakoa izaten zen lehenago: atezaina, bi atzelari, hiru erdilari eta bost aurrelari. Gerora hasi ziren sistemak aldatzen. Berak ezkerretik jokatzen zuen. Lehengo futbola oraingoa baino gogorragoa zen, futbol zelaiak ere halakoak zirelako. Astean behin egiten zuten entrenamendua lantegitik aterata. Lanean galdutako orduak ordaindu egiten zizkieten.

17. Futbola utzi eta gero taldeko diruzain

- **Erref**: BEA-048/027
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:36:15. **Bukatu**: 00:38:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak

Laburpena:
1955 inguruan utzi zuen berak futbola. Futbolean gehien kobratu zuenean,

irabazteagatik 25 ogerleko ordaintzen zizkieten, berdintzeagatik 20 eta galduz gero 15. Gero, Joanito Aranburu jarri zen lehendakari eta bera diruzain gisa sartu zen. Ondorengo urteetan izugarria izan omen zen soldatek eta eskakizunek nola egin zuten gora.

18. Inguruetako gazteak Beasainera igandetan

- **Erref**: BEA-048/030
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:40:58. **Bukatu**: 00:42:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:
Inguru guztietatik etortzen ziren gazteak Beasainera plazara, zinera edo dantzara. Ordiziakoei ez zitzaien gustatzen hori. Ordiziako neskak ere Beasainera etortzen omen ziren.

19. Ordizian festetan antolatu zuten lasterketa

- **Erref**: BEA-048/031
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 00:42:08. **Bukatu**: 00:45:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:
Ordizian lasterketa bat antolatu omen zuten behin festetan. sei-zazpi lagun hasi ziren prestatzen lasterketarako eta entrenatzeko Altamirara joaten ziren korrika. Irteeran Ordiziakoak lehenbiziko lerroan jarri ziren, eta Beasaingoak atzean. Hala ere, lehenengo lau sailkatuak Beasaingoak izan omen ziren.

20. Bere lehenbiziko lasterketa Beasaingo Porterian

- **Erref**: BEA-048/032
- **Iraupena**: 0:02:06. **Hasi**: 00:45:06. **Bukatu**: 00:47:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:
Inguruan korrika lasterketak antolatzen ziren, festetan batez ere. Lehenbiziko aldiz Porterian atera zen korrika, gurasoen ezkutuan. Anaiak bizikletaz eraman zuen bide-zati baten, lagundu asmoz. Gero norbaitek denuntzia sartu eta saria kendu zioten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-07

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com